

Lurraldeen arteko harremanak: sistema eragile libre oso baten alde

Xan Aire

Seaskako Hizkuntza Proiektuaren koordinatzailea ofizioz. Soziolinguistika-dibulgatzaile amateurra Euskaltzaleen Topagunearen eskutik, batez ere tailer desberdinen bidez, euskaraz zein frantsesez, Ipar Euskal Herrian (gaztetxoekin, gurasoekin, irakasleekin, animatzaileekin, euskara ikasleekin, administrazioko teknikariek, hautetsiek...). Aldudeko ibarreko Adur euskara elkartekidea, Garabide hizkuntza-kooperazio elkartekidea

xaire@ehi.ikastola.eus

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. Euskal Herriko lurraldeen arteko ikuspegi kritiko bat proposatzen du artikuluak, oinarrian 2017ko urtarrilaren 26an Topaldian hitzaldia izan dena, Durangon. Euskalgintzan zentratuz, zubigintzan eragiten duten trabak azpimarratu egiten dira hemen, formakuntza gosez dagoen Iparraldeko teknikari baten ikuspegitik: 2000. hamarkada arte iraun duen euskalgintzaren estrategia jakobinoak bere mugak erakutsi ditu, batez ere zubi asimetrikoak utziz lurraldeen artean; gaur egun, Hego Euskal Herriko euskalgintzako eragileen arteko konkurrentziak ez dio onik egiten euskararen biziberritzearen sustraitze eta sozializazioari. Tokian tokiko erreferente argien beharra da plazara eman nahi hemen, funtzioen banaketa berriz gogoetatu eta adostuz, euskalgintzak eta bere helburuek toki zentralago bat ukan dezaten gizartean eta politikan. Euskalgintzaren antolaketa hobetzeko, software libreak inspirazio-iturri izan daitezkeela errana da hemen, lokaletik abiatutako unibertso baten alde, polo fisiko eta birtualetan ardatzuz hizkuntzaren biziberritzearen ondare komuna. • *Hitz gakoak:* euskalgintza, formakuntza, konkurrentzia, ondare komuna, sustraitzea, hedatzea.

Abstract. This paper offers a critical perspective of the relationships which exist between the different regions of the Basque Country, based on the talk given in Durango on 25 January, 2017, during the Topaldia gathering. In relation to Basque cultural activity, the paper highlights the obstacles which hinder the forging of ties and collaboration, from the perspective of an expert from the Northern Basque Country who is eager to access training activities. The Jacobin cultural strategy that has been in place since the turn of the 21st century has been found wanting, particularly since one of its legacies is a series of asymmetric ties between the different Basque regions. The concurrence which exists today between those working in the Basque cultural field in the Southern Basque Country does nothing to foster the establishment and socialisation of the Basque language revival process. This paper aims to highlight the need for clear local references and the necessity of rethinking and reaching a new agreement regarding the distribution of tasks so that Basque cultural activity and its aims can play a more central role in both society and politics. The paper suggests that free software may constitute a source of inspiration for improving the organisation of Basque cultural activity, working in favour of a universe rooted in the local and focusing the common heritage of the language revival process on both the physical and the virtual domains. • *Key words:* Basque cultural activity, training, concurrence, common heritage, establishment, dissemination.

LURRALDEEN ARTEKO HARREMANAK: SISTEMA ERAGILE LIBRE OSO BATEN ALDE

Hainbertze esperientzia eder eta emankorren artean, truke-gune eta -giro beharrezko honetan, ez da erraza izaten ponentzia kritiko batekin azaltzea: hala tokatu zait oraingoan, Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanez jardutea, Iparraldea deitu periferiatik.

Zabala da gaia, eta erabaki dut teknikari gisa kokatzea hemen, alde batetik ene gogoetaren ardatzak ahal bezainbat argitzearren, errealtate eta egunerokotasun hotz batetik abiatuz; euskaltasunaz baino, euskalgintzaz arituz. Kontziente naiz hautu horrek bere mugak badituela, batez ere lurralde-harremanen ikuspegi orokorrari eta kulturalari kalte eginez.

Kontziente ere banaiz ene hitzek Hego Euskal Herriko batzuk gaitzitzeko arriskua dakartela. Puntuak galdurik ere hemen, ez nuke nahi nehork uste izan dezan protekzionismoz, probintzialismoz jarduten dudala. Alderantziz: sustraitzeaz eta hedatzeaz arituko naiz, tokian tokikotik abiatu-erako eraikuntza kolektibo baten alde.

EUSKAL JAKOBINISMOAREN MUGAK

Ikuspegi kritiko hau inaugura dezagun Euskal Jakobinismoa deitu mugimenduaren mugetatik: Txomin Peillen edota Eneko Bidegainek erabili izan duten terminoa da, alderdi politikoen arloan, zentralismo batetik bideratu urrats uniformeak gaitzesteko. Hau da: gehienetan Gipuzkoan (edo EAEn) hartu erabakiak, Euskal Herriko hiriburuetan urrats eta tempus berdinetan konkretizatuz ondotik. Euskalgintzari doakionez, 2000. hamarkadaraino heldu ziren estrategia jakobino horren azken olatuak.

Olatuen metafora baino, zirimiria erabiliko nuke, haatik, euskalgintzaren estrategia horren ondorioa laburbiltzeko, beti ere Ipar Euskal Herrian ikusirikoan fidatuz. Girote zerbait lortu da menturaz, baina mugak erakutsi ditu: zilegitasun puntu batetik, eragin puntu batetik, eta, zer erranik ez, ekintza aldetik. Zaila da esplikatzea, baina erran nezake halako "intrusismo" baten sentipena izan dela oinarrian, eta hortik zerbait eraikitzea gaitza ateratzen dela. Zergatik? Erabaki edo politika berdina denetan aplikatzerakoan, ez baitira kontutan hartu tokian tokiko egoerak, dinamikak, lan egiteko moldeak, baliabideak, nabardura kulturalak... Bertzaldetik, erabaki edo politika hori aplikatzeko manua eskatu duen egitura ez baita izan lokalki ezaguna, edota ezagutua: zilegitasuna, eta beraz, autoritatea kolokan izanez, zaila eragina eta ekintza ondo-

***Ikuspegi kritiko
hau inaugura
dezagun Euskal
Jakobinismoa
deitu
mugimenduaren
mugetatik:
Txomin Peillen
edota Eneko
Bidegainek
erabili izan duten
terminoa da,
alderdi
politikoen
arloan,
zentralismo
batetik bideratu
urrats
uniformeak
gaitzesteko.***

Zein izan zen, ordea, Euskaraz Bizi proiektu nazionalaren akatsa? Prozesu edo protokolo berdina jartzea Euskal Herriko ikastola guzietan: azpi-helburu berdinak, plangintza eta epe berdinak, tresna berdinak... Errealitatean, baliabide zinez desberdinak zirelarik: ikasle-kopuruek, profesional-kopuruek, jarrera soziolinguistikoek... ez dute deus ikustekorik Tolosan ala Sohütan, adibidez.

rioztatzea. Ideia horiek laster ilustratuko ditut, pertsonalki bizi izan dudan adibide batez.

Hori baino lehen, puntu bat galdezketatu nahiko nuke: jakobinismo horrek anbizio estatalak ote zituen? Behar bada, baina gisa horretan, ez zitzaizkion araberako baliabideak eskaini ahal izan. Dirua bazegoen bai, gaur egun baino gehiago, mugimenduaren oinarrian, baina ez helburuetara iristerainokoa, ez-eta urratsen garapena lortu eta iraurarazterainokoa. Eta 2008ko krisi ekonomikoak ez zuen lagundu: baliabide murrizketek lanpostu kopuruetan eragin zuten, Baionako hainbat bulego ixteraino (Imanol Esnaolak azpimarratu bezalaxe, Topaldi honetako mahai-inguruan). Garaian, Gipuzkoan ondorioztatu ziren biluzte-erabakiak ez ziren baitezpada ulertu Baionan, iritsi bezala joan zineten berri, eta lurraldetasun-harremanak (zubiak?) ez ziren areago sanotu: harreman asimetrikoak eta mesfidantza zirikordatu ziren, Hego Euskal Herriko eta Ipar Euskal Herriko euskalgintzaren artean.

Ikastolen mugimenduan ere, egoera berdintsua jasan zen Euskaraz Bizi deitu egitasmoarekin: esperimentuak Tolosan izan zuen arrakastaren ondotik, Euskal Herri osoko ikastoletara zabaltzeko apustua egin zen Donostiako bulegoetan, ikasleen euskararen erabilpen soziala sustatzeko asmoz. Pertsonalki, begi onez ikusten dut helburu berdinak finkatzea denetan: beharrezkoa ere iduritzen zait, euskalgintzaren eta herri-ko-hesioari begira, bertzeak bertze.

Zein izan zen, ordea, Euskaraz Bizi proiektu nazionalaren akatsa? Prozesu edo protokolo berdina jartzea Euskal Herriko ikastola guzietan: azpi-helburu berdinak, plangintza eta epe berdinak, tresna berdinak... Errealitatean, baliabide zinez desberdinak zirelarik: ikasle-kopuruek, profesional-kopuruek, jarrera soziolinguistikoek... ez dute deus ikustekorik Tolosan ala Sohütan, adibidez. Jakinez, gainera, Hego Euskal Herriko ikastola bakoitzak irakasleren bat liberatu zuela Euskaraz Bizi proiektua ikastetxean koordinatzeko; Seaskan haatik, bolondreski obratu behar izan zen koordinaketa-lan berdintsua. Baldintza horietan, Euskaraz Bizi egitasmoa lan-zama gehigarritzat hartu zen Seaskako klaustroetan, zein buraso-elkarteetan. Horrela jokatu, asmo onenekin ere, Ikastolen Elkartek ez zuen, nahi ala ez, autoritaterik Iparraldean eragiteko. Ahantzi gabe EAE-ko ikastolek, plangintza eta abarrek Jaurlearitzarekin kontrastatu behar zituztela, derrigor, diru-laguntzak medio; eta Ipar Euskal Herrian... Seaskako teknikariokin! Gauza bera da?

Noski ezetz, eta desoreka horiek guziek ez zuten Euskaraz Bizi egitasmoaren sustraitzea ahalbideratu, Seaskako ikastoletan behintzat: azale-

koa atera zen proiektua, euskararen aldeko “kanpainitis” bezalakoan erori, eta nekez iraun. Krisi ekonomikoak izan zuen biluzte-eragina, hor ere bai (xehetasunetan sartu gabe). Eta puntaren puntan, Euskal Herriko bi lurralde nagusien arteko zubia kolokan...

SUSTRAITZEAZ

I

Egitasmoak hedatzerakoan, maiz ahanzten dugu funtsezko puntu bat: sustraitzea. Edo, gutienez, aitzinetik pentsatzea egitasmo zabal bat nola txertarazi/lotarazi lokalki. Horretarako, tokian tokiko beharrak aztertzea oinarritzko galdera da, boli-dorrearen ondorioz ez bada jasan nahi, behintzat, Euskal Jakobinismoan gertatu bezalatsu.

Sustraitzearen ideia hori argitzeko, kulturara eginen dut digresiotxo bat. Joan den udan, UEUK eta Jakin aldizkariak eskuz esku antolatu zuten ikastaro bat, Baionako Zizpa Gaztetxean: kulturaren autodeterminazioa zen gaia. Hainbat gogoeta sakon plazaratu ziren han, baita esperientzia ederrak ere argira eman.

Deigarria egin zitzaidan ikustea han aurkeztu proiekturik osoenak (eta, bide batez, pertsonalki interesgarrienak iduritu zitzaizkidanak), nola beren ingurumen hurbilean sustraituak diren: Katakarak Iruñean, EHZ festibala Ipar Euskal Herrian, Astra Gernikan, eta abar. Egitasmo horiek guziek izerdi komuna dakarte: balio-multzo zabalei begira, tokian tokiko behar edo hutsune bati erantzutea, behin ingurune hurbileko errealitatea sakonki ezaguturik, bizi izanik, eta batez ere partekaturik. Gogoeta parte-hartzaileek hazitako egitasmoak baitira. Pena bakarra mugimendu bakoitzak ez baitzuen bere hizkuntza-hautuez jardun.

Hortik atera zen bertze ideia garrantzitsua, hauxe izan zen: lokalki finkatua den egitasmoak, oihartzuna eduki eta eskain dezake maila zabalagoan. Euskaldunon komunitatean, zein zazpi probintzia mailakoan... Katakrazen adibidea argia da horretan, eta uste dut EHZk berak izaten ari duela oihartzun berezia gaurko euskal gazteriaren baitan: galdegin Donostiako Piratei ez ote duten deus ikasi Lekornen, elkarren arteko saretze bat ez ote duten buruan bederen irun, unibertso komuna osatzeko puntan, bakoitzaren berezitasunetik, baina denen artean...

Sustraitzea funtsezkoa zait zubigintzan... batez ere zubigintzan gutitan pentsatzen dugularik zubipuntei: horiek sendo finkatuak ez direnean, zer gertatzen zaio gure zubiari? Desegiten da, logikoki... Atxikiko nukkeen ideia, zera da: behetik gorako prozesuek badutela zer ekar sustraitzean, baita hedatzean. Batez ere hizkuntza, kultura, eta herri minorizatueta.

Lokalki finkatua den egitasmoak, oihartzuna eduki eta eskain dezake maila zabalagoan.

**Funtzioen
definitze eta
partekatzearen
prozesuan,
azpimarratu nahi
dut gogoeta
jarraikia edo
formakuntzaren
garrantzia,
hiruzpalau
galdera nagusien
inguruan
dantzan arizanez:
Zer helburura
heldu nahi dugu?
Zeri kasu egin
behar dugu?
Nola eta norekin
antolatuko gara?
Nola banatuko
ditugu indarrak
denboran?**

TOKIAN TOKIKO ERREFERENTEAK

Iruñean Katakarak sortu dutenek, badakite kontzienteki zergatik egin duten; Iruñeako jendeak badaki zergatik eta zertarako hor dagoen. Baita Iruñeatik baino haratagoko jendeak ere: zerbaitengatik gara goxoki sentitzen han, te ekologiko edo zurito arruntena hartzen, Iparraldetik jinik ere.

Hari beretik da jalgitzen ondoko galdera: zer litzateke Euskal Herri mailako ikastolen mugimendua, Seaska sendo ez balitz Ipar Euskal Herrian? Ikastolen Elkarteak kooperatiba europearra bilakatu zelarik ere, erabaki zentzuzkoa izan zen Seaska bere horretan atxikitzea: ez dira irakaslelanpostuak Frantziarekin Donostiatik negoziatzen, guk nahi ala ez.

Alde batetik, garrantzitsua zait tokian tokiko erreferenteak argiki identifikatuak izatea: bizi diren ekosistemaren parte izatea; polisaren parte, politikaren parte, hor bete nahi diren helburuak inguruko gizarte zabal mailara hel daitezen.

Bertzaldetik, ez da komeni, denborarekin, sobera lausotzen uztea zer den delako erreferentearen funtzioa ingurumen horretan: elkarlan baten seinalea zait, bertzeak bertze.

Funtzioen definitze eta partekatzearen prozesuan, azpimarratu nahi dut gogoeta jarraikia edo formakuntzaren garrantzia, hiruzpalau galdera nagusien inguruan dantzan arizanez: Zer helburura heldu nahi dugu? Zeri kasu egin behar dugu? Nola eta norekin antolatuko gara? Nola banatuko ditugu indarrak denboran?

Uste dut galdera ebidente —baina lausoerraz— horien inguruko formakuntza jarraikia dela mugimendu sozio-kultural politiko ororen oinarrietarik bat: jarraidura eta irekiduraren arteko inertzia baten aukera zait.

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aldizkari desberdinak irakurtzea aski da, ikusteko mugimenduak zer heineko garrantzia ematen dion formakuntzari: astero-astero, laborariei zuzendu tailer edo ikastaro baten iragarpena dago, urte osoan, sasoiaren arabera. Badakigu, Seaskan ere, zein garrantzitsua den irakasleen prestakuntza. Baina ohartzen ari gara ez dela baitezpada aski irakasleak gogoetaz blaitzea: hezitzaileak, langileak, burasoak ere busti behar dira. Baita ikasleak.

Iparraldeko euskalgintzan, nahiz-eta bakoitzak bere arloan prestakuntza espezifikoak eduki, askoz pobreago zait formakuntza-giro orokorra. Gizarte zabalean ere, euskarari buruzko formakuntza aipatzean, lehenik

ulertzen da helduen, langileen... euskalduntzea. Badakigularik, gaur egun, terrenoa ez dela hain murrizta, hizkuntza politika batek zelai zabalagoak jorratzen dituela: soziolinguistika, ahalduntzea, legea...

Iparraldean oinarritzko gai horiek lantzerakoan, ordea, joera nagusia da zuzenean Hego Euskal Herriko edota Frantziako intelektualak zein egiturak ekarraztea: hori batez ere gertatzen da konfrontaziora joan nahi delarik, eztabaidara edo gogoeta partekatura; “kontzientizatzeko”, “eskuhartze” deitu prozesuetan murgildu nahi delarik. Baina Hegoaldekoek zein Frantziakoek beren aportazioa egin ondoan (hitzaldi edo tailer batean adibidez), bada beti halako umezurtz izatearen sentsazioa lehenik, ondoko galdera jalgi aitzin: non geratzen dira Iparraldeko erreferenteak? Antolaketa horretan, zer autoritate dute eragiteko, ekintzarako? Gogotarako, lan-jarraikirako? Hots: politikarako?

Zentra gaitzen doi bat Hego Euskal Herriko eskaintzan: bai, jakintza sakona eta aberasgarria mugitzen duzue hizkuntza biziberritze konuetan. Baina zuek zuzenki emanez formazio-saio edo tailerren bat Iparraldean, anitzetan zapore gazi-gozoa, sentipen hankamotza ere dabil airean, ondotik. Alde batetik, delako saio edo tailerra doi bat moldatu beharko zela ohartzen baikara: nahi ala ez, Hegoaldeko teknikari edo formatzaileek ez dute Iparraldeko egoera, errealitatea, ñabardura ongi menperatzen (zubigintza teknikoak, zubigintza kulturala zabaltzea eskatzen du lehenik, ene ustez). Hortik, zaila da saioan jorratu gaia sustraitzea eta sozializatzea gure lurraldean, eta nekezia orokorrak sortzen ditu hizkuntza politika bat garatzerakoan.

Zinez pragmatikoki hitz egiten segitzeko, prezioen gaia ere aipa dezaket: Hegoaldeko eskaintzak anitzetan garestiegi zaizkigu. Euskararen biziberritzeak ez du zentraltasuna Iparraldean, eta, ondorioz, baliabide urriak ditugu. Batez ere elkarte-munduan: gogorarazi behar ote da Etxepare lizeoa sagarrondo saltzen dabilela bere egoitza berriaren materiala finantziatzeko?

Horrez gain, Iparraldeko administrazioetako euskara teknikariek, bertze zailtasun bat azpimarratu izan dute: gure hautetsiak ez dira beti bero Hegoaldeko egitura baten ekarpen zuzena diruztatzeko. Nahiago lukete Iparraldeko erreferente baten lana ordaindu.

Egoera horretan, Iparraldeko teknikarioro gure burua formatzea interesgarria zait: konplexurik gabe, gure terrenoa ezagutzen dugula, bertan erreferente zuzen eta iraunkorrak izateko, erakunde eta gizarte zibilaren artean zubigintzan aritzeko, funtzioak banatzen laguntzeko, batzuen gogoak eta bertzeen politikak, batzuen politikak eta bertzeen gogoak

elkar elikatzeko; gure hizkuntzaren biziberritzearen sustraiak sendotuz bezala, euskalgintzatik haratago hedatzeko eta partekatzeko.

ONDARE KOMUNA

I Teknikarioroi tokatzen zaigu zuzenki formatzea, beraz, Iparraldean zuzenki ekiteko eta eragiteko gure hizkuntza politikan. Horrek erran nahi ote du Hegoaldeko ateak itxiko ditugula? Ez gaitezen tontoak izan: formatzeko, Hegoaldera doan zubia zeharkatuko dugu, gogo onez, bertze mota bateko zubigintza bat gogoan, hizkuntza lankidetzaren ildotik, elkarrengandik badugula beti zerbait ikasteko (Iparraldeak ere baduela zerbait irakasteko Hegoaldeari?), euskaldunon komunitatea trinkotuz, zubi asimetrikoak nibelatuz.

Bai, baina hortxe dator bertze galdera: behin Hego Euskal Herriko zubipuntara iritsirik agertzen zaigun biribilgune horretan, zein irteera hartuko dugu gure formaziorako? Noren atean joko dugu? Nor da guretzat egokiena? Ebete, Elhuyar, Emun, Euskaltzaindia, Klusterra, Kontseilua, Topagunea, Unibertsitateak, Uema...?

Nor? Batek gehiago daki gai horretan, bertzeena osagarri nuke haatik... Batekin lan egiten badut, zer gertatuko da bertzeekin? Buruhauste horiekin, azpimarratu nahi dut Hegoaldeko euskalgintza-egituren arteko konkurrentzia: ez da atsegina, ez-eta lagungarria. Berriz tematuko naiz erranez tokian tokiko erreferenteen funtzioen definitzea eta partekatzea zein den garrantzitsua. Are gehiago elkarren arteko konexioa lortu nahi baldin badugu. Herri mailan zer erranik ez.

Har dezadan adibidetxo bat, ene burua ulertarazteko. Demagun tokiko hedabide euskaldun multimedia bat sortu nahi dudala Baxenabarren: norengana azalduko naiz aholku eta formakuntza bila? Tokikomera, duda izpirik gabe: argiki identifikatua den erreferentea baita. Baina hizkuntza politika zabalagoan ikasteko, norengana jo? Ez ote da posible Tokikomen gisako erreferente bat osatzea?

Alta, azken 50 urteotan bederen, hizkuntza biziberritze eredu baten ondare komuna eraiki eta finkatu dugu, mundu mailan erreferente izaterainoko heinera helduz. Baina bitxi bada ere, ez dakigu ondare hori gure inguruko gizartean partekatzen, zabaltzen, konfrontatzen, molde kohesionatu eta koordinatuan, Garabide batek egin dezakeen modura Abya Yalako populuekin.

Bertsolaritzaren lorpenak begira ditzagun: mendeetako doinutegi eta metrika ondareari uko egin gabe, XXI. mendean funtzionatzen duen

zerbait lortu du bertsogintzak, nahiz-eta pertsonalki, ez beti eroso izan ekosistema horren plaza guzietan. Dena den, ez da kasualitatea izanen mugimendu horretan ere, formakuntza ardatz nagusienetarikoa izatea: bertso-eskolez gain, gai-emaleak, epaileak bezalako partaideek ere go-goeta jarraikia daukate...

Ikuspegi zabalagora berriz itzuliz, hizkuntza biziberritzeko gure ondare komunak teoria bideragarriak dauzka, soziolinguistikan oinarrituak. Lekuko daukagun esperientziak, gure ondare komuna galdezketatzen du, biziberritzen. Gure ondare komuna, Garabideren lau liburuxketan finkatua da. Gure ondare komunaren fragmentu berriak, unibertsite-etako ikerketan ere badaude, baita BAT aldizkariko artikuluetan. Gure ondare komuna du azkenik inarosten Gari Goikoetxearen "Euskara irabazteko bidean" liburuak.

Badakigu D eredia oinarria dela. Badakigu haur eta gazteek, urteko beren denbora kopuruaren %15a ikasgelan pasatzen dutela. Badakigu ikasleen harreman-sareak kooperaziorantz mugituz, euskara gehiago erabiltzen dutela beren artean. Badakigu gabeziak aisialdian, kulturari, eta helduen munduan (lan munduan) daudela. Badakigu elebitasuna euskararen alde kudeatzen idatzian, ahozkoan. Badakigu legeek nola mugatzen gaituzten. Badakigu diglosia kontutan hartuko duen hizkuntza politika partekatua eta antolatua izanen dela gure aterabidea.

Badakigu Euskal Elkargo berrian, Jaurlaritza zaharrea bezala, mugaz gaindiko harremanen lehentasunak ekonomia eta turismoari loturikoak izanen direla: badakigu hor izan beharko dugula euskararena txertatzeko. Badakigu galderarik interesgarriena, azken finean hauxe dela: nola antolatuko gara hor izateko?

Euskara aplikazio bat baizik ez dela azpimarratu izan du Maialen Lujanbiok. Ez ote da euskalgintza bera ere aplikazio bat delako? Noiz osatuko dugu sistema eragile (libre?) oso bat, ondare komun multiformea, anitza eta dinamikoarekin, tokian tokiko behar eta errealitateei erantzuten dakiena, unibertso bat osatuz bezala?

Noiz utziko diogu bakoitzak gure egituratxoaren kapitala metatzean lehentasuna ezartzen? Hori baita errealitatean gertatzen ari: Iparraldetik formatu nahi dugularik, Hegoaldeko egitura bat aukeratu behar izaten dugu, bere ezagutza eta gabeziekin. Smartphone bat behar dugularik bezala da: edo Android, ala iOS, ala Windows Phone, ala... Idealean, alta, Android sistema Iphone gailu batean gogoko genukeelarik, adibidez. Kapitala metatze-filosofiak, konkurrentzian oinarrituak, eskatzen

**Ez naiz
kasualitatez ari
software libreen
aldeko
diskurtsoan:
heldugabeak
izanik ere, %100
efikazak ez
izanik ere,
sistema
bideragarria
daukate,
elkartasun eta
kooperazio
lurrun
zerbaitekin.
Inspirazio-iturri
izan daitezke
hizkuntza
minorizatuen
biziberritzearen
antolaketarako.**

du baliabide ugari: euskalgintzak hori baimentzen ahal ote dio bere bu-ruari, eta batez ere bere helburuei? Luxu hori badaukagu? Edo gure ja-kingtza(k) Creative Commonsera pasatu behar ditugu bai ala bai?

Ez naiz kasualitatez ari software libreen aldeko diskurtsoan: helduga-beak izanik ere, %100 efikazak ez izanik ere, sistema bideragarria dau-kate, elkartasun eta kooperazio lurrun zerbaitekin. Inspirazio-iturri izan daitezke hizkuntza minorizatuen biziberritzearen antolaketarako. Oi-narri bideragarria lokaletik globalera, eta globaetik lokalera, xume pen-tsatzu baina beharrei erantzunez, ikasiz hobetuz, gaur egun Hego Euskal Herriko euskalgintzan bizi dugun bezalako krisi kapitalista gaudituz. Diru-laguntza sistemak nonbait elikatzen duen krisia, artetik errateko eta polemika antzuetan sartu gabe.

POLO FISIKOA ETA BIRTUALA

I Sistema eragile libre oso bat beharrezkoa zaigula uste dut: politikan ari baldin bagara, behintzat, badakigu gauzak ez direla zerutik erortzen... Gure antolaketa deseginaren ondorioa ere badela gaurko egoera lausoa, baita elkarren arteko ezagutza eskasa. Interesgarria zait bi poloek ar-daztuko luketen mundu bat osatzea: polo fisikoa, eta polo birtuala. In-portantea zait polo bakoitzaren funtzioak definitzea.

Lehen proposamentzat, iduritzen zait polo fisikoak ahalbideratu beharko lukeela eztabaidatzea, erabakitzea, formatzea, sortzea, bizipena, terre-noaren segipena. Polo birtualak, berriz, erraztu beharko luke saretzea, partekatzea, hedatzea, bulgarizazioa, datu basea. Ez litzateke gaizki bi poloen artean, pentsamenduaren ekuatorea bermatuko balitz, liburu eta artikuluen bidez sakonketa-lanak egiteko, kolektiboki zein indibidualki.

Lausoki ari naiz hemen: garrantzitsuena zait bi poloak elkarren osagarri izatea, gure arteko antolaketa bera hobetzeko, lokalki zein globalki, inda-rrak debaldetan ez erretzeko. Sustraitzea eta hedatzea bermatzeko, urratsak zedarriz: gizarte zapartatu honetan, oinarrizko euskarriak behar ditugu (batez ere denborak ez irensteko gure asmoak, gure elkarlana).

Horretan ere zait unibertitateen lana funtsezkoa: gure esperimentazioek eta lorpenek, zigilu akademikoa behar dute. Jakinez, gainera, ikerketa-arlo zabala bezain sakona eskain dezaketela: terrenoan murgildurik gabiltzanoi, eskas zaigu distantzia hartzen dakien begirada bat, ahalaz teorien bidez ere gure ondare komuna biziberrituko duena denboran, eta zilegituko mundu akademikoa. Adibidez, Baionako fakultateko Beñat Lazkanoren tesia funtsezkoa da Seaskarentzat eta euskararen biziberriarentzat: euska-

razko murgiltze ereduaren lorpenak zigilatzen ditu. Pena bakarra da Iparraldeko lehen ikastola sortu, eta 47 urteren buruan atera dela ikerketa.

Zubigintzara berriz itzultzeko, Soziolinguistika Klusterra bezalako egitura batek osa dezake akademia eta terrenoaren arteko soka, EAEn behintzat, eta behar bada topagune zerbait genuke eskas Iparraldean, gizarteko hein guzietan eragiteko (formalenetik zirtzilenera).

Lurralde bakoitzari doakio erabakitzea bere antolaketa. Sukalde lanez gain, gogoeta parte-hartzaileak funtsezkoak izanen dira. Alex Vadilloren hitzak berriz hartzeko: “Lidergorik onena, lidergo berriak sortzea ahalbidentzen duena”. Dena errana da. Ikusi behar nola moldatuko garen Euskal Herri mailan antolatzeko: baliabideen gaia ere mahai gainean pausatu beharko da. Eusko Ikaskuntza asmo ederretan dabil azken hilabeteotan, hori gidatzen laguntzeko, behintzat.

Giro baikor kritiko bat sor eta elika dezagun. Partekatzeaz beldur ez garen gozamen kontziente eta kolektibo bat. Iparraldean ere, jakin dezagun erabakitzen noiz eta zertarako ekarrarazi Hego Euskal Herriko lagunak. Eta Iparraldeko ere, ez gaitezen beti hain exotiko azaldu Hegoaldeko plaza eta tribunetan. ●

ERREFERENTZIAK

LIBURUAK:

“Hiztunpolisa” (Pamiela, 2013), Jon Sarasua; “Libertitzeaz” (Pamiela, 2014), Antton Luku; “Euskara irabazteko bidean” (Berria, Elkar, Jakin, 2016), Gari Goikoetxea.

ARTIKULUAK, ELKARRIZKETAK, HITZALDIAK, SOLASALDIAK, TXOSTENAK:

Txema Abarrategi, Lorea Agirre, Ihintza Aldana, Ellande Alfaro, Kike Amonarriz, Esti Amorrortu, Mattin Bacho, Helena Baraibar, Andoni Barañain, Bat, Eneko Bidegain, Kristina Boan, Katixa Dolhare, Joaquim Dolz-Mestre, Lierni Elortza, Karine Etxeberri, Ricardo Etxepare, Garabide, Maialen Garat, Jone Goirigolzarri, Eneko Gorri, Jone Miren Hernandez, Ikastolen Elkarteko Hizpro Mahaia, Mattin Irigoien, Peio Irigoien, Mikel Irizar, Ibai Iztueta, Pello Jauregi, Gorka Julio, Paula Kasares, Amets Lahetjuzan, Ainhoa Lasa, Beñat Lazkano, Maialen Lujanbio, Ainize Madariaga, Iñaki Martinez de Luna, Jose Manuel Odriozola, Mikel Ozaita, Parlantzua, Txomin Peillen, Txerra Rodriguez, Bea Salaberri, Gemma Sangines, Asier Sarasua, Miquel Strubell, Joseba Tapia, Topalabea, Nicolas Tournadre, Belen Uranga, Asisko Urmeneta, Alex Vadillo, Xamar, Mikel Zalbide, Oskar Zapata, Zubideiak.

**Giro baikor
kritiko bat sor
eta elika
dezagun.
Partekatzeaz
beldur ez garen
gozamen
kontziente eta
kolektibo bat.
Iparraldean ere,
jakin dezagun
erabakitzen noiz
eta zertarako
ekarrarazi Hego
Euskal Herriko
lagunak. Eta
Iparraldeko
ere, ez gaitezen
beti hain exotiko
azaldu
Hegoaldeko plaza
eta tribunetan.**